



LIFE08NAT/E/0055



LANDARE INBADITZAIILEEN INGURUMEN INPAKTUA KOSTALDEKO EKOSISTEMETAN

Ezagut itzazu, eta lagundu gure kostaldea babesten!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

 **ihobe**

A close-up photograph of vibrant green leaves with serrated edges, likely from a plant like a chickweed. The leaves are densely packed and show clear vein patterns. Overlaid on the left side of the image is white, bold, sans-serif text.

INBASIO
BIOLOGIKOAK
KOSTALDEKO
EKOSISTEMETAN


Kostaldeko ekosistemek biodibertsitate handia hartzen dute barnean eta zerbitzu ekosistemikoak hornitzen dituzte; uholdeen prebentzioa laguntzen duen erregulazio hidrologikoa adibidez.

Landare exotiko inbaditzaileak ugaritzea da Euskadiko kostaldeko ekosistementzako **mehatxu** handienetako bat

- *Baccharis halimifolia* (goi-padurak, dunak eta labarrak)
- *Carpobrotus edulis* (dunak eta labarrak)
- *Spartina alterniflora* eta *Spartina patens* (urak hartutako eremuak)
- *Cotula coronopifolia* (komunitate azpihalofiloak)



Baccharis halimifolia



Carpobrotus edulis



Spartina alterniflora eta
Spartina patens



Cotula coronopifolia

Landare inbaditzaileak **nahita** ekar daitezke, lorategietara edota obra publikoetara. Nahi izan gabe ere iristen dira, lurreko edota itsasoko garraioaren bitartez, baita modu naturalean zabalduta ere

SAKABANATZEA

- Sustrai- edo errizoma-zati txiki baten bidez ugaltzeko.
- Haizeak, urak edo hegaztiak sakabanatzen dituzten hazi ugari sortzen dituzte. Batzuek milioika ere sortzen dituzte.
- Bertako landareak baino bizkorrago hazten dira.
- Narriatutako eremuak edo lugorriak baliatzen dituzte kokatzeko, baina baita ekosistemetan dauden txikiak ere.

INGURUMEN INPAKTUA

- Kostaldeko ekosistemaren bertako landaredia deuseztatzen duten masa trinkoak osatzen dituzte.
- Faunako espezieen habitata aldatzen dute bai eta mehatxatutako florako espeziarena ere, kokatzea eta ugaltzea galarazita.
- Inbaditzen duten ingurunearen ezaugarriak eraldatzen dituzte jalkinak atxikiz, lurraren gazitasuna zein hezetasuna aldatuz, eta abar.
- Labore, larre eta nekazaritza-ustiategietan eragiten dute, paisaia aldatzen dute, eta alergiak sor ditzakete.

DEUSEZTATZEA OSO ZAILA DA, PREBENTZIOA LEHENETSI BEHAR DA HORTAZ

- Salmenta eta merkaturatzea debekatuz.
- Lorategietan, obra publikoetan, eta gainerakoetan saihestuta.
- Kokatzen diren habitatak kontserbazio-egoera onean edukiz.
- Espezie eta populazio berriak agertzen diren zainduz.

KOKATUTAKOAN, AZKAR JOKATU BEHARRA DAGO

- Populazio txikiak deuseztatuz.
- Ekologikoki sentikorragoak diren eremuak lehenetsiz (adibidez, hezeguneak, dunak...).
- Nahasita dauden eragile guztiekin koordinaturik lan eginez (herri-administrazioak, sektore pribatua, ikerketa-zentroak eta herritarrak).

DEUSEZTATZEKO EKINTZAK KONTU HANDIZ EGIN BEHAR DIRA, KOSTALDEKO EKOSISTEMAK OSO INGURUNE AHULAK BAITIRA

- Hainbat metodologia uztartzea:
 - Fisikoak (landareak sustraitik erauztea).
 - Kimikoak (profesional kualifikatuek herbizidak modu seguruan aplikatuz, ingurunea kutsatzea eta bestelako flora- eta fauna-espeziei eragitea saihestuta).
 - Bestelako batzuk, urez betetzea edo abeltzaintza, esaterako.
- Inguruneko landareak eta fauna errespetatzea:
 - Kostaldeko ekosistemetan bizi diren hegaztien eta beste animalia batzuen ugalgaraia kontuan hartzea.
 - Habitat eta landare kalteberenetan eragitea saihestea.
 - Habitata lehengoratzea landare inbaditzailea deuseztatu ondoren.



NOLA EGIN AURRE ARAZO HONI

.....
LIFE+ Euskadiko estuarioak proiektuko "Estuarioak: mehatxuak eta
kontserbazioa" lehiaketan hautatutako argazkia
Egilea: Eladio Aires Pacheco
Izenburua: Jaizubiatik. Egunsentia Jaizubiako paduretatik (Hondarribia)
.....

ZER EGIN DEZAKEZU ZUK?

.....
Baccharis halimifoliaren haziak armiarma-sare
batean harrapatuta, Camarguen.
Egun haizetsuetan, 5 kilometrotara ere barreia daitezkeen
hazi txiki-txikiz betetzen da airea.
Iturria: LIFE+ Euskadiko estuarioak proiektua
.....

INFORMATU

- Landare exotiko guztiak ez dira inbaditzaileak, oso modu oldarkorrean ugaltzeko eta zabaltzeko gauza direnak bakarrik.
- Kontsulta itzazu Euskadiko espezie exotiko inbaditzaileen katalogoa eta arautzen dituen araudia. Informazio-iturria:
 - Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
- www.ingurumena.net

PREBENITU

- Lagundu kostaldeko ekosistemak zaintzen. Errespeta itzazu duna-kordioak, ihitzak eta lezkadiak, edota kostaldeko txilardiak, bai eta labarretako landareak ere.
- Zu izan zaitzke sakabanatzeko bide bat! Landare inbaditzaileak ikusiz gero, kontuz ibili zure arropan edo oinetakoetan haziak edo landare-zatiak itsats ez daitezten. Eta ez ezazu inoiz landararik etxera eraman!
- Galdetu mintegian bertako landareez. Ez ezazu trukatu jatorri ezezaguneko landare, hazi edo erraboiak. Baliteke zu landare inbaditzaile bat zabaltzen aritzea.

EKIN

- Begiratu zure lorategian, agian landare inbaditzailearen bat duzu!
- Ingurune naturalean landare inbaditzaileak ikusiz gero, ohartarazi agintariei.
- Parte hartu gure kostaldeko udalerrietan aldian-aldian landare inbaditzaileak deuseztatzeko antolatzen diren boluntariorantzako programetan eta jardunaldietan.

ZABALDU

- Informatu ondoren, zabaldu zure inguruan.
- Kontzientziatu mintegiak (eskatu bertako espezieak saltzeko), zure udala (eskatu ez dezatela espezie exotikorik landatu eta kostaldeko ekosistemak babesteko).
- Ez bota liburuxka hau, eraman ezazu mintegietara, udaletara, informazio- edo interpretazio-zentroetara.

LIFE+ EUSKADIKO ESTUARIOAK, ESTUARIOAK LEHENGORATZEKO PROIEKTU BAT

Baccharis halimifolia euskal kostaldeko estuario guztietan dago. LIFE+ Euskadiko estuarioak proiektuaren bitartez masa nagusiak deuseztatzea lortu da, bai eta bertako landaredia lehengoratzea ere, Urdaibai, Lea eta Txingudiko estuarioetan.

Baccharis halimifolia deuseztatzea eta estuarioetako habitatak lehengoratzea

- 700 hektarea baino gehiago tratatu dira.
- 9.500 zuhaitz eta zuhaixka landatu dira.
- Estuarioko habitaten 300 hektarea lehengoratu dira.

Espezie inbaditzaileek estuarioetan eragindako arazoen berri ematea

- Material didaktikoa eta dibulgaziozkoa.
- Jardunaldi teknikoak eta gidatutako bisitaldiak Erakusketak.

Koordinazioa eta ekintza globala kostalde atlantikoan

- Nazioarteko lantalde bat sortzea.
- Kudeaketa-eskuburu bat editatzea.



LIFE programa Europako Batzordeak ingurumen arloan baliatzen duen finantzaketa-tresna da. Proiektu hau gauzatu ahal izan da % 50eko ekarpenari esker.